

Udalak antolatutako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik

12. orrialdea

Gorbeia Suzien Ternua 27an

Gorbeia Suzien Ternua nagusiak 31 km. izango ditu eta 2.400 metro positibo. Gorbeia Suzien Ternua Herrikoiak, barriz, 22 km. Galapan egin gura ez dabena, oinez be egin ahal izango dabe Gorbeia Suzien Ternua Herrikoia ibilbidea. Ibilbide nagusia barria izango dau aurten, desnibel handiagokoa. 10. orrialdea



Tranbiaren erakusketea ikusgai egongo da Areatzan 18tik 27ra

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

236

2015eko urri lehenengoaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Landa Garapenerako Programea 2015-2020



Pagadia.

Argazkia: Gorbeialde.

Gorbeialde Landa Garapenerako alkartek, eskualdeko Landa Garapenerako Programea (LGP) 2015-2020 jasoten dauan dokumentua egin dau. Aurreko LGPa 2007 urtekoa zan eta harrezkeroztik gauza asko aldatu dira gure eskualdean.

Dokumentua egiteko Lantalde teknikoak, Gorbeialde Landa Garapenerako alkarteko zuzendaritza batzordeak eta eskualdeko hogeta hamaika eragilek hartu dabe parte. Lau ardatz daukaz, baxotxa bere helburuakaz, eta helburu guztiak neurgarriak dira. Helburuak, eskualdeak garapenera erkatua eta jasangarria izatea, kalidadeko produktuak ekoiztea eta herritarrai bizi kalidadea bermatzea dira.

Dokumentua ez dala itxia, irekia baino eta aldaketak egiten diranean barriztuten joango dala dino Bingen Larizgoitia Gorbeialdeko arduradunak. 8. eta 9. orrialdeak

Arratiako baserria MerkArtean



MerkArteara Euskal Herri osoko baserrietatik ekarten dabez kalidade oneko produktuak. XXII. edizino honetan be holan izango da, baina Arratiako produktuak emon gura izan deutsee garrantziarik handiena. Artisanak be euren produkturik onenak ekarriko dabez azokara.

Eguerdian zetzeria erakustaldia, Gibelurdinek taldearen musikea eta Maurizia, Leon eta Fasio erraldoiakaz kalejirea egongo da. Iluntzean Eñaut Elorrietaren kontzertua plazan. Gaubean musikeak jarraituko dau: Garilak 26 taldeak erromeria joko dau eta goizaldeko hiruretan DJ Festa, gaua jantzan egiten amaituteko. 5. orrialdea

IGORRE

Euskera Eguna



"Inbiu" Igorreko Euskera Eguna urri lehenengoaren 19an ospatuko da. Aurten, euskerazko irakurzaletasuna sustatzeko helburu dauka eta euskal literaturearen inguruan girotuko dabe eguna.

Bertsoak, liburu trukaketak, ginkaneak, bazkariak, jantzak eta erromeriak osotuten dabe egitaraua.

Inbiu Egunak igorretarrak euskeraz bizitera animetea dauka helburutzat. 7. orrialdea

ARRATIA

Organikoaren Hamabostaldia

Botaten dogun materia organikoa murriztu, berrerabili eta birzikletako, Organikoaren Hamabostaldia antolatu dau Arratiako Udalen Mankomunidadeak. Konposta egiten edo ortua balkoian ipinten ikasi ahal izango da urri lehenengoaren 22tik urri bigarrenaren 1era Igorren. Datorren hilaren 7an, barriz, Alex Mujika sukaldaria egongo da jateko hondarrak aprobetxetako errezetak emoten Arantzazun. MerkArtean be konpostaren gaineko erakusmahai ipiniko dau Mankomunidadeak. 5. orrialdea

ARRATIA

Emakumeen Mundu Martxeari atxikimentua erakusteko ekitaldiak

Emakumeen Mundu Martxako karabana feministea Arratian izango da urri bigarrenaren 3an eta haren aldarrikapenakaz bat egiteko hainbat ekitaldi sinboliko egin dabez Arratian. Holan, Areatzan, okarana landatu dabe eta bertoko hazia erabilia artoa erein eben Zeanurin. Dimak argazkia bialdu dau karabanara eta Igorren, landaketa sinbolikoa egingo da hilaren 22an. 7. orrialdea

U2T UBITE

Tel.: 94 631 60 65 - 615 75 87 92
e-mail: ubitemat@ubitesl.com

Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A
48140 IGORRE (Bizkaia)

ERA GUZTIETAKO MATERIALAK ERAIKUNTZARAKO

LUR BEGETALA ZOHIKATZA ZAKUETAN EGURRA ZAKUETAN

ASTELEHENETIK BARIKUBA
07:45-12:45
14:00-18:30
ZAPATUETAN
08:30-12:30

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

LETONA ETA ARETXAGA (II)

Oihalgintzan, proiektu bi atera zituan aurrera Santosek: bata, 1892an, Balmasedako La Encartada txapelen fabrika; eta, bestea, 1897an, Usansoloko La Josefina (alaba nagusiaren izena) sortu eban. Usansoloko fabrika honek kotoizko produktu haridunak egiten ebazan; behin Santos hilda, ondorengoak salduko deusie Firestone (gaur egun, Bridgestone) enpresa amerikarrari 1932an. Behar bada, Santos Lopez de Letonaren inber-sinorik ezagunena, eraikuntzaren arloan izan zan, honako beste hau: Portugalete eta Getxoren arteko Bizkaiko Zubia (edo *Puente Colgante*); 1893an, Alberto Palazio arkitektoak eginiko burri-nezko estruktura arkitektonikoaren

finantzazioan, diru-kopururik handiena Lopez de Letonak ipini eban (100.000 pezeta, ordurako diru mordo). Gaur egun, Bizkaiko Zubia, UNESCOk deklarata, Mundu mailako Ondarea da.

Santos en interes ekonomikoak Bizkaian eta Mexikon egon ziran. Mexikoko industrian, hango bankuen sektorean eta nekazaritza arloan: esate baterako, Banco Oriental de México eta Banco Español Refactorio izenekoen sortzailea izan zan 1911ko urtean; baita be, hainbat *rancho* eta *hacienda* handien jaubea izan zan. Santos Lopez de Letona 1924an hil zan. Bere jaioterian, Zeanuriko kanposantuan, Letona familiak eukan kapela eta gutziko panteo-

ian lurperatu eban. Haren karguan egoan kapilauak egunean pezeta bat kobrau egiten eban, mezak emotearren.

Lopez de Letona familian ondorengo Josefina zan (1875-1938), Santos en alaba nagusia. Santiago Aretxaga Agirregaz ezkondu zan Bilbon, 1892an. Santiago (1864-1931) Ubidekoa zan, eta Santos aitaren familiartekoa. Santiagok Mexikora emigrau eban gazterik, Santos en babesa lortu, negoziotan sartzeako, eta Letonatarak Bilbora bueltau ziran, Santiago bera be bueltau zan. Ubiden eukien etxea erre ostean, eraikin barri bat egiteko agintea emon eutsien Alfredo Acebal, Bilboko arkitekto ospetsuari 1910ean. Etxe barria *Chalet Aréchaga* izenez ezagutua, estilo ingelesean egon zan eta Acebalek Arkitektura



Aretxaga etxea.

arलो Sari Nazional bat jaso eban lan horrengatik. Txaletaren aurrean dagoan Madalena ermitea birreraiki eban Aretxagak estilo eklektikoan 1906an, lurperatute-

ko hilobi-leku pribadua bihurtuz. Bertan hilobiratuta dagoz Santiago eta Josefina andra-gizonak eta euren seme-alabak.

Angel Larrea Beobide

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehenengoaren 14tik 20ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 21etik 27ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Urri lehen. 28tik urri bi. 4ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40,

12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Eraso sexistarik ez!

Aurtengo udan albiste ugari izan doguz komunikabideetan andren kontrako indarkeria dala eta. Batetik, bikotekide edo bikotekide izandako gizonak hildako andrak edota hildako seme-alabak, andreari min emoteko.

Beste alde batetik, esan geinke herri guztietara zabaldu dala jaietan eraso sexisten aurkako kanpaina. Urte asko daroa mobimentu feministeak eraso sexistai aurre egiten, Arratian be bai, eta Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzua be, sortu zanetik, horretan dabil, eraso sexistak bistaratzen eta aurre egiteko tresnak martxan jarten.

Era berean, danon preminea dago hain zabaldua eta normalizatuta dagoan indarkeriari aurre egiteko, herritarren erdiari zuzenean edo zeharka eragiten deuskulako. Horrexegaitik, harrigarria izan da BEGITU aldizkarian, aurreko alean, holako komikia ikustea, sexista berbea kendu eta erasorik ez dinoana.

Jakina eraso guztien aurka gagozala, eraso guztiak eraso diralako, ez diralako inondik inora onartu behar. Baina sexistak be

ez. Batak ez dau bestea kentzean.

Hau da, eta beste era batera esanda, eraso guztien aurka egoteko sexista berbea kendu beharrik ez dago. Urteak daroaguz hain ostenduta, normalizatuta dagoan sexismoa bistaratzen, prebeniduten, aurre egiten... Sexista berbea ezin da kendu, barriro be tapau, garrantzia kentzean deusgualako, ez diralako kontrajarriak, bata esateko, bestea kendu beharrik ez dagoalako.

Gainera, erasoak eraso, iruditzen jaku eraso mota batzuk oraindino normalizatuta daukaguzala eta hori normalizazioa apurtu beharra dagoala, jaiak, gaua, kalea, danonak diralako, andrazkoenak eta gizonezkoenak, eta ez da justua andra edo neska izateagaitik, izentatzeagaitik, eraso sexistak aguantau beharra, normalak diralakoan.

Horrexegaitik, eraso sexistak bistartzeko beharra dogu, eraso sexistarik ez esan behar dogu, gure eskubideak eta askatasuna aldarrikatzeko, jentarte libreagoa, eta justuagoa lortzeako. Horretan gabilz.

**ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNIDADEKO
BARDINTASUN ZERBITZUA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Gauzeztan



Ezertarako balio ez dauana da gauzeztana. Edo gaitasunik ez daukana. Balio bako persona zein gauzak erabilten da (gausestana, agoskatuta). Batuaz, gaieza da. Berba hau ez da lar irakurten gaur egun, baina daukana baino erabilera zabalagoa euki leike. Esate baterako, azken urteetako aurrerapen teknologiko handiaren ondorioz, balio barik edo ezerezean geratu dira hainbat tresna gauzeztandu egin dirala esan geinke. Personakaz egindako adibidea dozu honakoa: "gauzeztana ez da urin helduko gaurko gizartean".

ERETXIA

Esfortzu handia?

Badaroaguz urte batzuk derrigorrezkoa ez dan Hezkuntzako 0-3 tarte honetan beharrean, Haurreskoletan hain zuzen be.

Martxan daroazan 11 urteko ibilbide honetan, gizarteak eta beronen momentuko errealidadeak bizi izan dauanaren gorabeherak lagun, etapa desbardineta pasau garala esan daiegu.

2003ko abenduan hasi eban bere ibilbidea Haurreskolak Partzuegoak, helburu nagusi lez landa eremuetako herrietako familiei eta 3 urtetik beherako haurrai kalidadezko hezkuntza eta laguntza zerbitzu "publikoa" eskeintzea eta bermatzea ebana, eta aldi berean familia bizitzaren eta lan bizitzaren arteko bateragarritasuna lortzea bilatzen ebana.

Hasikerea udaberria lez, lortua izan zala esan daiegu. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak udalakaz lankidetzan uri zein herri txikietan, baina batez be landa eremuetako zonaldeetan, adin tarte honetan egoan hezkuntza eskeintzearen hutsuneari bide emonez hainbat Haurreskola zabaldu ebazan.

Zentroen ordutegiak familien eskaeren arabekoak (oingoak baino zabalagoak) ziran, hezitzaile eta haurren arteko ratioak neurrikoak ziran eta batez be familiek jasoten eben zerbitzuegaitik ordaindu beharreko kuota ulergarriagoak ziran. Ulergarriagoak dinot teoriarantz zerbitzu publikoko izakerea beharko leuken hezkuntza eskeintza baten gainean berba egiten nabilalako.

Ratioetan gorabeherak emon dira, ezelango izakera sozialik ez daukan kuota sistema barri bat ipini da martxan, orain arte egoan beka sistemen desagerpena estali guran... eta azkena 2015eko bagilaren 15ean Haurreskolak Partzuegoko Zuzendaritza Batzordeak hartutako ebatzia, non 4 ume matrikulauta dagozan Haurreskoletan ordutegi aldetik eskeiniko dan zerbitzua mugatua eta murriztua ikustetik aparte,

GARAZI URIEN ETA MAITANE URIARTE

Hezitzaileak

erantzunak. Antza danez Zuzendaritza Batzordearen arabera Haurreskola 5 haur edo gitxiagoz zabaltzean "esfortzu" handia suposatzen dau. Esfortzu handia.

Non geratzen da Haurreskolak bere sorreran eukien helburua? Non geratzen da landa eremuetako familiek euren seme-alabai kalidadezko hezkuntza eta arreta zerbitzu publikoa eskeini ahal izateko eskubidea? Non geratzen da landa eremuetako familiek lan bizitza eta familia bizitza bateragarria egin ahal izateko aukera eta eskubide hori?

Akaso uri eta herri txikietako familiek ez daukie eskubide berbera zerbitzu publiko bardin baten aurrean?

Mingarria, hipokrita eta iraingarria da eskaparate aurrean publikotzat eta kalidadezkozat saltzean dogun zerbitzu "publiko" baten murrizketen aurrean konplize izatea. Alferrekoa da azken bi-hiru urteetan murrizketarik ez balego legez Haurreskolak Partzuegoak familien jaiia ospatzea errealidadea bestelakoa danean. Izan be, egunerokotasunean Arratia eta bestelako eskualde txikietako Haurreskolak bizirik iraun dagien honek hauspotzen dihardugun komunitate osoari beharrezko bultzadea emon eta erreztasun zein baliabideak bermatu beharrean, honek murriztu eta baldintza zorrotzagoetan jardutera garoez.

Ni neu naz lehenengoa pozarren joango neintekena Partzuegoak antolatzen dauan edozein jaitara, benetan bermatu beharrekoak urte osoan zehar bermatzen dirala ikusi eta sentiduko baneu. Konbenziduta nago, egun hori helduko dala, goitik beherako borondate faltaren aurrean, behetik gorako lantalde handia osotuten dogunon arteko kementa eta bokazioa indarra hartuz doazelako, bihar-etzi heldu izango diran haurrak eta hurbileko hezkuntza komunitatea osotuten dogun kide guztiak kalidadezko hezkuntza sistema duintu, sozial, euskaldun eta dobakoa bermatzeko egunerokotasunean lanean gogor jardungo dogulako.

berauek irekita eta bizirik mantenduteko erispideak baldintzatuak izango diran.

Ebatzi honen aurrean eta etorkizun hurbil baten, gure eskualdean hezkuntza tarte honer modu negatiboan eragin deikeola argi ikusita Arratiako Haurreskoletak hezitzaile eta familiek batu, neurri honen gainean gure kezka eta desadostasuna erakusten dauan idatzi bat bideratu, eta sinadura bilketa bat ipini genduan martxan, 700 atxikimentutik gora lortuz eta honek Eusko Jaurlaritzara bideratuz.

Berehala jaso genduan erantzuna, ago zabalik itxi ginduzan

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Liburu bat

Gomendatu neike liburu bat, edo gomendatu neike Jon Gerediagaren azkena. *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* (Pamiela, 2015) negar egiteko eta lasaitasunean gozatzeko zeruz eta lorez betetako arte lana da. Mobidu deustaz mamu maitagarri batzuk, konturatu naz nire idazkarearen inpotentziak bere erreztasunen aldean.

"Ezkiak, sahatsak,/ intxaurrondoak, haltzak,/ hurritzak, ibiltariak,/ akaziak, gaztainondoak,/ haritzak, lizarrak,/ likidanbarrak,/ erramuak".

Gerediagak kantetan deutso amari, natureari, lore urdinai. Garrantzi berbera emoten deutso haize ufada batek jantzazitako bedar printza bateri zein heriotzari. *Fitola balba, karpuki tui* (Pamiela, 2004) itzel haretako iniazino-eritualetatik itxita eta *Zentauro-hankak* (Pamiela, 2012) arean justuxoagoaren ostean heldu egin da duran-garra. Orain bataio bat opatzen

deusku bizitzaren erreka luzearen uretan, orain desmasiak itxi eta gauza handiak azaltzen ahalegin-du da.

Minimalista eta aszetikoa, liburu hau ez da horratio astuna ez enpalaguzkoa. Dana doa idazkerara arin eta errepikapenetan gozo bategaz: "dena izate geldo, dena iraupen,/ dena halabehar, dena atsedean".

Batzuek esango dabe Gerediaga zeru goietatik dabilala eskapaka, eta ez daukala kontau gura munduko arazorik. Baina irakurlea laster konturatuko da kenduz-kenduz landutako poesiaren mamia opatzen jakola. Ez badau berba egiten gauza handiez, hain zuzen da berba gitxi batzukaz dalako kapaz gizakiaren arazoak deskribetako. Bizitza —fikzino eder hori— egiazko poesia da hemen. *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* bila-bila ibiltearen kronikea da, putzuaren azpia ezetuta harritzen da-eta bat sendabideaz, umezurtza akordetan da baeukala aita. Eta begira-begira zelan berdatzen diran adaburuak astiro neguaren ostean, sagasti zuri-zuriak sutan, liburu honek azaltzen deusku portadatik bertatik hasita —Gerediagaren alabearen marrakzi bat— zer dan benetan garrantzitsua eta zer bigarren mailakoa.

ZERTZEAN



AINHOA MENDIA

1

Eguzkitxo eta oporrak agostuen nagusiak mendi aldean zein hondartzetan egun ikaragarriak oporrak joan doakuz, baina helduko dira barriak ez daitezala joan, ordea, arpeietatik irriak.

2

Udazkenara bidean gagoz ude dabil akabetan sandaliek ta fraka laburrek gorde armarioetan jakea eta euritakoa behar doguz gehienetan protagonistek euri ta haize dire egun honeetan.

Gaia jarrita: "Urri lehenengoa"

3

Laster batean hasiko jakuz paisaiak be aldatuten berde biziek atzean itxi ta zuhaitzak gorrituten gaztaina, intxur eta urrek be hasiko gara batuten negu gorrien gure etxeetan ezebe falta ez daiten.

4

Gehienontzako ezta iziten hau hilerik politena beti be, ude akabeteak ekarten deusku ta pena urtea ondo pasatuteko gauzerik eta onena indarrez eta gogoz hartzea da gomendagarriena.

5

Lapitzek eta boligrafoak preparentako ordue baite koaderno, ordenadore eta kalkulagailue eskolarantza, fabrikarantza martxan hasi de mundue normaltasunek betetan deusku urtero irailan burue.

6

Yoga, pilates, eskupelota futbola, rugby zein pala mila ekintza egin daikeguz daukagu aukera zabala lagun artean jarraituteko aukera bikaina dala pentsetan dot horretan behintzat danok ados gagozala.

BEGI TXINDORRA

Lurrean etzan eta zerura begira egoteko sasoia da uda; neguan, egunerokotasunean murgilduta, beti lurrera begira, aitzu be egiten dogu zelango plazerra dan zeruari eta lainoai begira egonean egotea. Gontzal Mendibilek bialdu dau argazki hau eta Bertizen (Nafarroa) aterata dago.

Oporretako momentu ederrak geugaz konpartidu eta Argazki Lehiaketan parte hartu gura izan ezker, hilaren 25a baino lehen bialdu behar dira beginu@topagunea.com helbidera. Hamar egun baino ez dira geratuten. Urri lehenengoaren 25ean zarratuten da bialtzeko epea eta hurrengo egunetan batuko da epaimahaia 2015eko irabazlea aukeratuteko. Urri bigarrenean emongo da argazki sarituaren barri.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonatologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Etauz/For, 15
48330 LEMDA (Bizkaia)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehenakari Agutse

ARTEA

Bertoko produktuak eta zetreria MerkArtean



MerkArtea.

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 19an, MerkArtea XXII. Artisautza eta Nekazaritza Azokea egingo dabe Artean. Azokan, Euskal Herri osoko produktuak egongo dira salgai, baina aurten Arratiako produktuak emon gura izan deutsee garrantzirik handiena. Kalidade handiko ogia, esnekiak, eztia, txakolina, konserbak, ortuko produktuak, zerbeza, gaztaia, txokolatea, ta-loak eta pastelak erosi ahal izango dira MerkArtean.

Baserriko produktuak erostez gainera, beste gauza asko egiteko aukerea egongo da. Holan, Mankomunidadeak konpostajearen jaia antolatuko dau, erakusmahai, berbaldi praktikoak eta abar eskeiniz. Zetreria erakustaldia be egongo da Ekumuseoaren ondoan, eta arrastian eta gaubean kontzertuak eta erromeria goizaldeko ordu txikiak arte.

Artisautzari jagokonean, egurrezko eta harrizko produktuak egongo dira; bitxiak eta artilea, izaten dira gehien saltzean diran produktuak. Jatekoari jagokonean, ogia, gaztaia eta frutea izaten dira produkturik salduene-

takoak.

Eñaut Elorrietaren kontzertua

Eñaut Elorrieta, Ken Zazpi taldeko abeslariak kontzertua eskeiniko dau iluntzeko 20:30ean, Arteako plazan. Elorrietak *Deserriko kantak* izenagaz estrenau eban 2013an bakarkako bere lehen diskoa. Deserria, bakardadea eta norbere burua berrasmatzeko aukerea da, sentimentu unibersala. Lan hau ezagutzera emoteko bira maiatzean amaitu eban arren, duda barik, disko honetako kantuak entzuteko aukerea egongo da Artean.

Egitaraua

Goizean zehar azokea.

11:00etatik **13:00**etara, Zuresku. Egurrezko jolasak familientzat plazan.

12:00etatik, **15:00**etara, Gibelurdinek musika taldea, Maurizia, Leon eta Fasio erraldoiakaz.

13:00etan, zetreria erakustaldia Ekumuseo ondoko landan.

20:30ean, Eñaut Elorrietaren kontzertua plazan.

23:30ean, erromeria Garilak 26 taldeagaz.

03:00etan, DJ Festa.

ARRATIA

Materia organikoa hobeto kudeatzeko Organikoaren Hamabostaldia antolatu dau Udalen Mankomunidadeak

Erredakzinoa

Materia organikoak zaborraren zati garrantzitsua izaten jarraituten dau eta berau gehiago murriztu, berreskuz eta birzikletako Organikoaren Hamabostaldia antolatu dau Arratiako Udalen Mankomunidadeak. Jatekorik ez botaten irakasteko, Alex Mujika La Perla hoteleko sukaldaria etorriko da Arantzazura "Janari hondarrakaz sukaldatu" berbaldia emoten. Balkoian ortua egiteko proposamena be badakarre Organikoaren Hamabostaldian beste batzuen artean.

Hamabostaldia MerkArtean

abiatuko da. Han konpostaren jaia egingo dabe: informazioa egongo da erakusmahai baten eta hiru berbalditxo be egingo ditue. Zizareakaz konposta zelan egin, etxean zelan egin konposta eta konpostaren motak eta erabilpenak azalduko ditue berbaldiotan.

Berbaldi zikloa

Urri lehenengoaren 22an hasiko da berbaldi zikloa eta urri bigarrenaren 7an amaituko da. Atzena izan ezik, beste berbaldi guztiak Igorreko Kultur Etxean izango dira. Han, ortua balkoian, jatekoen konserbazinoa edo nekazaritza

ekologikoaren gaineko gaiak tratuak dira duda guztiak argitzeko asmoz.

Atzen egunean, urri bigarrenaren 7an, Alex Mujika sukaldariak jateko hondarrak zelan aprobe-txau erakutsiko dau Arantzazun.



BILBOTIK DURANGO ETA ARRATIARAKO TRANBIA ELEKTRIKOA. 50 URTE ARRATIAKO TRANBIA BARIK

ERAKUSKETEAREN AREATZAN URRI LEHENENGOAREN 18tik 27ra

*Astelehenetik barikura 17:00etatik 19:30era
Zapatu eta domeketan 11:00etatik 13:00etara
Inaugurazinoa urri lehenengoaren 18an 19:30ean Ludotekan
Ondoren berbaldia Jon Urutxurtu eta Juanjo Olaizola*

Gratiuso Herri Irakastetxeak

Gure irakastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoa

J.B. Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezuntza
Lehen Hezuntza
Derrigorrezko Bigarren Hezuntza
Batxilergoa
Hezuntza Zirkloa

2 urtetan 18ra

ARRATIA

Zeanuritik Bediara Arratia ibaiaren hegaletik oinez**Erredakzioa**

Europako Mobikortasun Iraunkorren astearren barruan, Arratiako Udalen Mankomunitateak Arratiako Ibaiertzetatik VI. Martxa antolatu dau. Martxa honek bailara osoa oinez zeharkatzeko aukerea emoten dau. Partaideak 20 km. egingo dabaz Zeanuritik Bediara Arratia ibaiaren hegaletatik. Horretarako, ibiltariak hilaren 20an batuko dira Zeanuriko plazan 09:00etan.

Martxa honek herriak batzean dituen oinezko bideak ezetutera emotea dauka helburu, beti kotxea hartu beharrean, Arratian herri batetik bestera oinez joateko aukerea egon badagoala jentek jakin

dagian, hain zuzen be. Urtero lez, martxako egunean autobusa egongo da partaideak abiapuntura eroateko. Autobusa Bediatik urtengo da 08:15ean eta Arratiako herri guztietatik pasauko da, baita Dimatik be. Bueltarako be egongo da autobusa, 14:00ak aldera, Bediatik urtenda.

Kotxe Bako Eguna

Egun horretan gainera, Kotxe Bako Eguna ospatuko dabe Bedian. Bizikletearen erabilera bultzatzeko helburuagaz, herriatik zehar bizikleta ibilbidea egingo dabe eta bideko hezkuntza landuteko zirkuitua be egongo da. Zirkuituan zein bizikleta martxan parte hartu dabenen artean, bizikleta bat zozketatuko da.

LEMOA

Aurrekontuak egiteko herritarren ekarpenak jasoko ditu Udalak**Erredakzioa**

Urri lehenengoaren 21etik urri bigarrenaren 18ra, Lemoako Udalak herritarren eretxi, kezka edo proposamenak jasoko dauz Udaleko mobil aplikazioa erabiliz edo herrian ipiniko diran buzoietan. Orduan hasiko dira 2016ko aurrekontuak diseinatzeko lemoaztarren partaidetzeagaz.

Lemoaztarrek aurrekontuen diseinuan parte hartu ahal izango dabe lau momentutan eta lau modutan. Lehenengo arestian esandako moduan, mobil aplikazioa erabiliz edo buzoietan ekarpena eginda. Urriaren 19tik 25era, udaleko or-

dezkarriak auzorik auzo ibiliko dira, buzoiak jaso eta auzokoak zuzenean berba egiten. Bigarrena, beraz, udalagaz auzoan berba egitea da. Hirugarren pausua urri bigarrenaren 26tik zemendiaren 1era izango da. Orduan, aurreko urteetan urtendako lau proposamen zehatz aurkeztuko dira eta bat aukeratuko da 2016an egiteko. Proiektuen erakusketak eta bozketak egingo dira. Parte hartzeako hirugarren modu edo pausua proiektua aukeratzeko botoa emotea da. Atzenik, zemendiaren 12an, 19:30ean, Udalak bere proposamena aurkeztuko dau batzar zabal baten, Jubiladuen Etxean.

ARRATIA

Euskera ikasteko diru laguntzak**Erredakzioa**

AEKn izena emoteko epea zabalik dago eta Igorreko Udalan euskera ikasteko diru laguntzak eskatzeko epea be bai. Arratiako udal guztiak diruz lagunduten dabe euskera ikastea.

Igorren urri lehenengoaren 15ean zabaldu da diru laguntzak eskatzeko epea eta zemendiaren 15era arte egongo da zabalik. Laguntzak jasoteko baldintza bi egiaztatu behar dira: Igorren erroldatuta egotea eta % 80ko asistentzia egiaztatzea edo maila gainditzea.

Dana dala, oinarriko mailan matrikuletan diran ikasleak aukerea eukiko dabe diru laguntza ikasturte hasieran eskuratzeko. Udaletako Euskera Zerbitzuetan egin daitezke eskariok.

ARRATIAKO IBAIERTZETATIK VI. MARTXA ZEANURI - BEDIA**IRAILAK 20, domeka**

LUZEERA: 20 Km inguru
IRAUPENA: 4 ordu
ZAILTASUNA: Erreza

URTEERA: Zeanuriko plazatik 9:00 etan.

- Autobusa egongo da Zeanurira joateko.
- 8:15etan Bediatik herriz herri Zeanurira (Dimatik ere)
- Amaitzean (14:00ak aldera) Bediatik herriz herri buelta Zeanurira.

 Hasiera

 Helmuga / Luntxa

Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta


DO THE RIGHT MIX

An initiative of the 
Arratia
"Bidean Gagoz"



Informazio gehiago 665 725 410 telefonoan

ARRATIA

Trikitixa soinuak auzoetako San Migel ermiten inguruan**Erredakzioa**

Altzustan (Zeanuri), Artean, Garben (Igorre) eta Urriben (Zeanuri) dagoz San Migel izenpeko ermitak. San Migel eguna, hilak 29, martitzena da aurten eta egun horretan zein aurreko edo osteko domeketan mezea eta barauskarria egongo da ermitetan, trikitixearen soinuak lagunduta. Auzune batzuetan, Zeanuriko Urriben eta Igorreko Garben, berbarako, hiru eguneko egitarauak prestatu dabaz.

Zeanuriko auzune bitan ospatuten dira San Migel jaiak. Hori dala eta jentek auzune bietan jaiok disfrutatuko aukerea izan dagian, Urriben San Migel egunaren aurreko zapatu-domekan ospatuten dira jaiak, eta Altzustan ostekoan.

Urriben (Zeanuri)

Urri lehenengoak 19, zapatua
14:00etan, auzo bazkaria eta ostean Mus Txapelketea.

16:00etan, trebetasun jokoak ume eta helduentzako. Ondoren euskal jantza ikastaroa.

Urri lehenengoak 20, domeka

11:00etan, Urribeko I. Bizikleta Karrera.

13:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

18:00etan, Igel Txapelketako kanporaketea eta Herri Kirolak. Desafioa: Aizkora, trontza-txokorrak.

Urri lehenengoak 21, astelehena

12:00etan, mezea eta barauskarria.

17:30ean, txokolata eta urdaia danontzat.

19:00etan, Igel Txapelketaren finala.

Hurrengo zapatu-domekan ospatuko dabaz San Migel jaiak Garben. Zapatu gaubean erromeria egongo da.

Garbe (Igorre)

Urri lehenengoak 26, zapatua
12:00etan, jai hasikerako txupina.

15:00etatik **16:00**etara, Tortilla Txapelketarako izen emotea.

18:00etan, Tortilla Txapelketako sari banaketea.

19:00etan, erromeria.

Urri lehenengoak 27, domeka

16:00etan, Briska Txapelketea.
17:00etan, umeentzako puzgariak eta tailerrak.

Urri lehenengoak 29, martitzena.

12:00etan, mezea.

13:00etan, barauskarria.



ARRATIA

Emakumeen Mundu Martxako karabaneak Arratian izango da



Areatzako ekitaldia.

Erredakzioa

Emakumeen Mundu Martxako karabana feministea martiaren 8an abiatu zuen Kurdistanetik eta urri bigarrenaren 17an amaituko dau ibilbidea Portugalen. Euskal Herrian urri lehenengoaren 28tik aurrera egongo da eta Arratian urri bigarrenaren 3an izango dogu. Hori dala eta, Arratiako talde feministak, andra taldeak, erakundeak eta andren giza eskubideen alde dagozan herritarrek hainbat ekimen egiten dabiz atxekimendua adierazoteko.

Aurten, Emakumeen Mendi Martxaren aldarrikapenetako bat elikadura burujabetza da. Hori dala eta, andrak haziak erein eta arbolak landatzeari ekin deusie ekintza sinboliko moduan. Gauza biak egin dabez Arratian be. Zeanurin artoa erein eben garagarrilean eta Areatzan okarana landatu eben urri lehenengoaren 8an. "Okarana aukeratu dogu alde batetik frutuak emoten dituan arbola gura gendualako; gure lanak eta burruka feministeak emoten dituan frutuen irudikapen. Eta beste aldetik lorea ederra bezain fuertea dalako; goiz ateratzen da eta hotz zein eguraldi txarra zirkikin egin barik agoantatzen ditu. Holangoa da andren giza eskubideen aldeko burruka be: ederra. Eta holantxe mantenduko gara gu giza eskubideak lortu arte: tinko, etsi barik, okararen loren moduan, eguraldi ona heldu arte frutuak emoteko prest" azaldu eban Idoia Ruiz zinegotzi eta Areatzako Emakume Foroko ki-

deak landatzeko ekitaldian.

Artoa ereitea eta argazkiak

Asterriako (Zeanuri) Landatxi baserrian artoa erein eben. Baserri honetan Arbe familiakoak arto haziak belaunaldiz belaunaldi gorde izan dabez eta bertako arto hori erein eben Zeanuriko andrak. Hazi horreetako batzuk Emakumeen Mundu Martxako karabanara eroango dabez. Izan be, karabanak hazien kutxa dakar eta tokian tokiko haziak batu egiten dauz, gero guztiak erakusteko. Karabanen Zeanuriko haziak eta Areatzako lurra gehituko dira, munduko hazi eta lurraz.

Atxekimendua adierazoteko beste aukera bat argazkia egitea da. Arratian be egin dira argazkiok hainbat lekutan eta karabanara eroango dabez. Holan, berbarako, Arratiako EH Bilduko andrak Lemoako jaietan argazkia egin eben Mundu Martxarako. Dimako andrak be argazkia bialduko dabe karabanara. Izan be, jaietako txupina Andraizea taldekoak bota eben eta argazki hori izango da bialduko dabena.

Urri bigarrenaren 3an Igorren

Urri bigarrenaren 3an Emakumeen Mundu Martxa Gernikatik Arratiantza abiatuko da. 13:30ean Lemoatik sartuko da Tallerretatik eta 14:00etan, Igorreko Kultur Etxeko aurrekaldean ondo etorria emongo jako ekitaldi batez, ostean bazkaltzeko. 18:00ak aldera Basauriantza abiatuko da barriro Mundu Martxako karabaneak.

IGORRE

Euskal literatura izango da Euskerearen Eguneko gaia

"Inbiu" Igorreko Euskera Eguna urri lehenengoaren 19an ospatuko da. Aurten, euskerazko irakurzaletasuna sustatzea helburu, euskal literaturearen inguruan girotuko dabe eguna.

Horren harira, jentek etxean daukan libururen bat eroango dau Kultur Etxeko plazara eta trukean beste bat eskuratuko dau.

Erredakzioa

Egunaren alde ludikoa literatura gaiaz buztartzeko, Euskera Planekoak asmatu dabe formula: ginkanea. Heretik zehar, eta bost gunetan banatuta, euskal idazleen inguruko informazioa egongo da eta informazio horretan oinarrituko dira Ginkanako galderak. Probai egoki erantzun ahal izateko, astebete lehenago, panelak egongo dira gunetan. Ginkanaren izena emoteko epea urri lehenengoaren 9tik 18ra bitartekoa izango da, eta Kultur Etxean emon beharko da izena. Talde bakoitzeko 5 persona, gutxienez.

Euskal literatura gertutik ezetu eta irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz, liburuak trukatzeko gune bat be egongo da. Hori holan, Inbiu Egunean parte hartuko daben guztiak etxean daukien liburu bat ekarteko eskatuko jakie, eta trukean beste bat eroango dabe.

Igorreko Euskera Egunaren 15. urte honetan, euskal literatura ezetutera emon eta herri gogoak aktibatu gura dabe Euskera Planekoak. "Pasibotasuna alde batera itxi eta aktibo izan gaitzean, euskerearen alde egotetik euskeraz bizi izatera pasatu gaitzean". Ildo horretatik, Euskera Planak herritar guztiak animatu gura dauz "euskeraz bizi gura dot" kamisetak jantzita etorri daitezkan Inbiu 2015 jaialdira.

Egitaraua

Igorreko eskolako umeak emongo deusie hasikerea egunari, 11:30ean Kultur Etxeko plazan. Bertan, bertso-antzeztua ikusteko aukerea egongo da.

12:00etan Ginkanea heretik zehar, 13:30ean poteoa eta 15:00etan bazkaria. Bazkarirako txartelak salgai egongo dira Gau Loran, Jubiladuen tabernan eta AZ Rugby tabernan. Helduentzat 13 euroko prezioa daukie txartelok eta umeentzat 8 euro.

Bazkalostean flashmob-a (jantza inprobisatua) egingo da eta jarraian, AMEK antolatuta, Jokaldi taldeagaz erromeria.

Jantza gura beste egin os-



2011n Lip dub-a egin zan Igorren Inbiu Egunean.

tean indarrak berreskuratzeko, 20:00etan, txokolate eta bizko- eta eguna ondo amaituteko, txoak egongo dira danontzat.

Inbiu 2015

euskal literaturaz gozatzeko eguna

irailaren 19an

- 11:30 hasikerea kultur etxeko plazan
- 12:00 ginkanea heretik zehar
- 13:30 poteoa
- 15:00 herri bazkaria
- 17:00 flash move-a
- 18:30 jokaldigaz erromeria
- 20:00 txokolatea

LIBURUTRUK. Ekarri etxean daukazun liburu bat eta trukean beste bat eroango dozu.

GORBEIALDE LANDA GARAPENERAKO PROGRAMEA

Kalidateko produktuak eta garapen jasangarria dira Landa Garapenerako Progaramaren helburu batzuk

Gorbeialde Landa Garapenerako alkartek, eskualdeko Landa Garapenerako Programea (LGP) 2015-2020 jasoten dauan dokumentua egin dau. Aurreko LGPa 2007 urtekoa zan eta harrezkeroztik gauza asko aldatu dira gure eskualdean. Izan be, eredu ekonomikoak 2007an "krisi" bat ekarri eban oraindino guztiz ez dana gainditu eta hainbat aldaketa eragin ebazanek. Hori dala eta, eskualdeko hasikerako diagnostikoa egin dabe; gero 2015-2020 aldian garatuko dan estrategia definidu dabe zeintzuk diran urte bakoitzean bultzatu behar diran jarduerak zehazteko. Dokumentua egiten, lantalde teknikoak, Gorbeialde Landa Garapenerako alkarteko zuzendaritza batzordeak eta eskualdeko hogeta hamaika eragilek hartu dabe parte.


Erredakzioa

Programa honeek Arratia-Nerbioi eskualdea –edo Arratia eta Nerbioi eskualdeak– daukie lan eremutat; hau da, hamabost udal: Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Artea, Bedia, Igorre, Lemoa, Orozko, Otxandio, Ubide, Urduña, Zeanuri eta Zeberio. Eskualdeko populazioaren oso portzentaje txikiak egiten dau behar lehenengo sektorean, baina balio estrategikoa dauka. Bizkaian portzentaje honek 2006tik 2011ra behera egin eban bitartean % 0,94tik % 0,86ra pasatuz; Gorbeialdean, hazi egin zan, % 1,93tik, % 2,2ra pasatuz.

Hirugarren sektorea be indartu egin zan urte horreetan, Bizkaian legez. Arratia-Nerbioi eskualdean, beharrea egozaren % 56,67tik, % 63,70 izatera pasau ziran hirugarren sektorean behar egiten ebenak; Bizkaian barriz, % 68,80tik % 74,68 izatera pasau ziran.

Jakina dan moduan, krisiak eraikuntza eta bigarren sektorean euki eban eraginik handiena eta datu honeetan be ikusi daiteke: 2006tik 2011ra bigarren sektoreak bost puntu galdu ebazan, eta eraikuntzak bat.

LGP barria egiteko prozesua abian ipinteko etxebizitza hutsen okupazioa be aintzat hartu eben



Iturria: EUSTAT

Arratia-Nerbioi eskualdean beharrea egoan populazioa sektoreka.



Gorbeialdeko egoitza barria.

Landa Garapenerako Programeak ekonomia, ingurumena, gizartea eta kultura hartzean dauz kontuan

Gorbeialdekoak. "Jakina gura genduan ea etxebizitza gehiago egin behar diran ala ez eta konklusioa izan da ezetz, ez dirala behar. Hutsik dagozan baserri asko bai, konpondu behar dirala eta horretarako diru laguntzak behar dira be ikusi dogu" azaldu deutso BEGITURI Bingen Larizgoitia Gorbeialde Landa Garapen Elkarteo arduradunak.

LGParen helburuak funtzino ekonomikoa bakarrik ez, ingurumen, eta gizarte eta kultura funtzinoak be baditu, euren ustez, lurraldearen garapena orekatua izan daiten, beharrezkoa dalako landako eta uriko bilakaerea aldi berean gertatzea.

Etxe hutsen datuak onak izan ez arren, orokorrean Bizkaikoa (% 21,47) baino hobea zan eta

INBIU EGUNA 2015
IRAILAREN 19an

JOKALDI
18:30etan
KULTUR ETXEAN (IGORRE)

www.ame.eus
#igorrenerosi

Jarrai gaitzazu



"COMPROMISO CON LAS PERSONAS"

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ordurako, Artean eta Igorren etxe huts gitxiago egozan urte batzuk lehenago baino. Gaur egun etxe hutsak gitxiago dirala dino Larizgoitiak.

LGP 2015-2020

Diagnostiko horretatik abiatuta, lantalde teknikoak, Gorbeialdeko zuzendaritza batzordea eta eskualdeko eragileakaz plan barria diseinetari ekin eutsan. Garagarriaren 21ean Programearen esparru estrategikoa egiaztatzen eta balioztatzen atzenengo taillera egin zan.

Holan, danon artean, eskualdeak garapen orekatua eta jasagarria behar daua adostu eben; baita kalidadeko produktuak ekoiztu behar dirala eta bertako herritarri bizi kalidadea bermatzeko oinarritzko zerbitzuak izan behar dituala Arratia-Nerbioi eskualdeak. Gizon eta andren arteko aukera eta baliabideen bardintasuna be estrategikotzat jo eben LGPa diseinetan parte hartu

dabenak.

Programeak lau ardatz daukaz, bakoitza bere helburuakaz, eta helburu guztiak neurgarriak dira. "Ez dogu sartu gura izan, neurtezko indikadoretik ez daukan helbururik" dino Larizgoitiak.

Honek dira ardatzok: Lehen sektore bizia eta barrizalea; eskualde dinamiko eta integratzailea; sektore turistiko lehiakorra, jasagarria eta kalidadekoa eta bizi kalidadea bermatzeko oinarritzko zerbitzuak. Lehen ardatzoko helburuetako bat, nekazal ustiapenen kopurua eta errentagarritasuna handitzea da; hori errez neurtu daiteke ustiapenen zenbakia erabiliz. Bigarren ardatzaren helburu bat jarduera ekonomikoen garapena bultzatzea eta enpresa eta jarduera profesional barriak bertan paretea da. Helburua bete dan jakiteko, langabezia tasak behera egin behar dau eta datu horrek neurtu ahal dau zenbateraino bete dan helburu hori.

Etxe hutsak 2011n, eta herri horretako ehuneko zenbat diran

Herria	2011	Etxe hutsen %
Arantzazu	32	% 17,68
Areatza	144	% 21,33
Artea	63	% 16,28
Bedia	115	% 21,58
Dima	133	%17,88
Igorre	278	%14,27
Lemoa	305	%17,18
Ubide	17	%12,14
Zeanuri	139	%20,06
Zeberio	137	%21,47

Iturria: Evaluacion PDR Arratia-Nerbioi 2007-2013

Tailerretan parte hartu daben eragileak

- Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
- HAZI
- Eusko Jaurlaritza
- ENBA sindikatua
- Udal Sarea 21. Arratia Bidean Gagoz
- Cooperativa Agrícola Ganadera Orozko
- Batz S. Koop
- Asociacion Forestalista
- Pottoka Elkartea
- Itxina Elkartea
- Supelaur Elkartea
- Bitel Elkartea
- Landa XXI Elkartea
- Dimako Abeltzainen Elkartea
- Lemoako Langabetuen Elkartea
- Igitie. Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkartea
- Errota Elkartea
- Areatzako Udala
- Arrankudiagako Udala
- Orozkoko Udala
- Ubideko Udala
- Zeanuriko Udala
- Igorre Bizirik
- Arratia Bizirik
- Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegia
- Orozkoko Itxinape Mendi Taldea
- Areatzako ekoizle bat
- Ekoizle bat
- Ekoizle bat
- Zeanuriko abeltzain bat
- Zeanuriko ostalari bat



Gorbeialdeko gaztaiak.

Argazkia: Gorbeialde.



Gorbeia.

Argazkia: Gorbeialde.

Programeak lau ardatz daukaz, bakoitza bere helburuakaz eta helburu guztiak neurgarriak dira

Bost urte honeetako LGPa jasoten dauan dokumentua Gorbeialderen webgunean egongo da laster, baina "ez da dokumentu itxi bat, dokumentu bizia baino, eta barrizten joango da". Barrizten dan neurrian, webgunean be aldatzen joango dirala dokumentu

hori dino Larizgoitiak. **Gorbeialdek egoitza barria** Gorbeialde Landa Garapenerako alkartearen egoitza lekuz aldatu da. Areatzan segiduten dabe baina orain Askatasun kalean, 34 A portalearen ondoan dagoz.

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igore
94 631 52 26

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 1.
48140 Igore (Bizkaia) Tfnoa.: 94 670 64 75

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 670 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@evokah.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietan, n.º 3. 48550 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 000-481839 eta 009200717

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

BTT MARTXEA

Tirituk antolatu dau aurten
Dimako BTT martxea

Erredakzioa

Dimako Tiritu Master Taldeak, Udalaren laguntzeagaz, BTT martxea antolatu dau urri lehenengoaren 26rako. Ibilbideak 38 km. inguru ditu eta partaideak Egiraun, Bargondia, San Lorentzo, Zumeltza, Altungan eta San Migel txikitik pasauko dira, "paraje zoragarrietatik". Izena Dimako Udalaren webgunean emon behar da eta horretarako atzen eguna urri lehenengoaren 23a da.

Aurreko sei urteetan, Sisetan Mendi Martxeagaz batera, Sisetan BTT martxea be antolatu izan dau Udalak. "Orain arte Tirituko partaideak laguntzaile izan dira Sisetan BTT martxan, aurten geuk hartu dogu antolatuteko ardura Udalaren laguntza osoagaz" azaldu deutso BEGITURI Naia Alzola Tiritu taldekoak. Oinezkoen martxea eta BTTa egun berean egitean, arazo batzuk sortzean zirala dino

Alzolak eta horregaitik ebatzi dabe beste egun baten egitea.

Martxearen ostean, jai giroa ipini gura dabe plazan antolatzailleak, helburua "jentea gustura egotea" da eta. Aurreko urteetan 70-85 txirindulari inguruk hartu dabe parte Sisetan BTT martxan eta horrenbeste batzea espero dabe antolatzailleak aurten. Eguraldiak be eragina izango dau jentearen parte hartzean.

Arantza Artetxe Beasaingo duatloiko podiumean

Arantza Artetxe Tiritu taldekoak podiuma egin eban hilaren 9an Beasainen jokaturako Igartzta Mendi Duatloian. Dimakoak hirugarren egin eban. Lasterketa hau Euskal Herriko Mendi Duatloi zirkuituaren lehena da. Bike Zona taldeko Meritxell Henalesek irabazi eban andrazkoetan eta Garribikes taldeko Julen Laruzeak gizonetakoetan.



publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

g

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

MENDI LASTERKETEAK

Gorbeia Suzien Ternua domekaz izango da aurten

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 27an, domekaz, izango dira aurten Gorbeia Suzien Ternua (GST) Mendi Lasterketea eta lasterketa herrikoia. Ibilbidea be ez da igazko bera izango.

Gorbeia Suzien Ternua nagusiak 31 km. izango ditu eta 2.400 metro positibo. Gorbeia Suzien Ternua Herrikoiak, barriz, 22 km. izango ditu eta galapan egin gura ez dabenak, oinez be egin ahal izango dabe ibilbide hau. Horretarako sei ordu ditue partaideak. Kadete mailako probak, barriz, 17 km.ko ibilbidea dauka.

Lasterketa nagusirako 500 dorsalak bagilean izena emoteko epea zabaldu eta 27 ordura amaitu ziran arren antolakuntzak beste 25 dorsal atera ditu eta izena emoteko aukerea dago ondino.

Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea Euskal Kopako eta Sky Runner National Serieko proba izango da.

Ibilbidea

Ingurune errazoiakaitik, GSTren antolatzailleak ibilbidearen zati batzuk aldatu egin behar izan dabez, baina probeak beti bezain ikusgarria izaten jarraituten dau. Antolatzailleak sano pozik dagoz Gorbeia Parke Naturalekoakaz egindako alkarlanagaz eta ibilbidea egin eben lasterkariak behin eta barrero adierazo eben eurak be poz-pez egozala ibilbideagaz.

Ibilbide barria igazko lekuetatik pasetan da, baina beste bide batzuetatik zehar. Lekandatik hur, Arrabako landetatik, Gorbeia kurutzetik, Dulau, Aldaminetik... Desnibela handiagoa da eta zati karstikoak teknikoagoak.

Izen handiak Gorbeia Suzien Ternuan

Aurreko urteetan lez aurtengo edizinoan be izen handiko korrikariak hartuko dabe parte, danak aitatutea astuna leiteke eta batzuk esatearren asko dira-eta maila handikoak, honeexek izenok: Ionut Zinca, Oihana Kortazar, Tofol Castanyer, Laura Orgue, Zaid Ait Malek, Azahara Garcia de los Salmenes, Jokin Lizeaga, Hassan Ait Chau, Imanol Goñi, Danielle Cappeletti, Aitziber Ibarbia, Montse Vazquez, Jordi Gamito, Manuel Merillas, Ismail Razga, Nerea Amilibia, Pablo Villa, Felipe Artigue, Javi Olaberria, Ivan Ortiz, Sandra Sevillano, Maria Zorroza, Imanol Larrañaga eta Depa, besteak beste.

Parte-hartzaileentzat haurtzaindegia zerbitzua egongo da eta



Lasterkariak ibilbidea ezetuten hilaren 12an.

Argazkia: Suzien Mendi Kluba.

masaje gunea, dutxen ondoan. Zaletuak korrikari guztiakaz batera bazkalduteko aukerea izango dabe, 8 euroren truke bazkarirako txartela erosi ezker. Parte-hartzaileen artean opariak zozketatuko dira. Sari sano potoloak izango dabez kategoria bakoetako lehen sailkatuak eta lehen postuan heltzean diran lehen andrazko eta gizonetako arratiarrak be saria eukiko dabe.

Asteko programazioa

Lasterketea domekan izango da, baina mendi lasterketa zaleak motorrak berotuten hasiko dira astean bertan hainbat mahai-inguru, berbaldi eta proiektzioen bidez. Ekitaldioak Zeanuriko Kultur Etxean eta Igorreko Kultur Etxean izango dira. Hassan Ait Chau, Aitziber Ibarbia eta Jokin Lizeaga korrikariak, Igor Anton txirindulariak eta Koikili Lertxundi futbolari eta borrokalari ohiak, Leo Houlding, Hervé Barmasse eta Alex Txikon eskalatzailleak, eta Kasia Biernacka espeleologeak, kirolaren alderdi desbarden gainean egingo dabe berba.

Lasterketa egunean, Disk Breakers-ek musikea ipiniko dau eta ekintza ugari egongo dira egun osoan jai giroa mantenduteko.

Urri lehenengoak 22, martitzena
19:00etan, Aiko taldeagaz jantza tailerra Zeanurin.

Urri lehenengoak 23, eguaztena
19:00etan, mahai-inguru "Zergaitik egiten dogu korrika?". Hassan Ait Chau, Aitziber Ibarbia eta Jokin Lizeaga. Moderatzailea: Andoni Beldarrain. Areatzako Udal Aretan.

Urri lehenengoak 24, eguena
19:00etan, mahai-inguru "Eusker eta kirola". Igor Anton eta Koikili Lertxundi. Moderatzailea: Amane

Ibañez ETBko kazetaria. Igorreko Kultur Etxean.

Urri lehenengoak 25, barikua
17:00etan, Kasia Biernackaren berbaldia eta argazki galeria.
18:00etan, prensaurrekoa.
18:00etatik 20:00etara, Lasterketa Nagusiko eta GST Herrikoiko darsalen banaketea frontoian.
20:00etan, Leo Houlding-en berbaldia eta proiektzioa.
22:00etan, Alex Txikonen filma.

Urri lehenengoak 26, zapatua
Ekintzak herrian egunean zehar: puzgarriak, denda espezializatuen postuak eta abar.
10:00etatik aurrera izen emotea.
11:00etan, umeen lasterketea.
17:00etatik 19:00etara, Lasterketa Nagusiko eta GST Herrikoiko darsalen banaketea frontoian.
19:00etan, briefing-a. Berbaldi tekniko.
20:00etan, Hervé Barmasse-ren berbaldia eta proiektzioa.
22:00etan, WOPeak. *2T on Paju Peak* filma.

Urri lehenengoak 27, domeka
07:00etatik 08:30era, Lasterketa Nagusiko eta GST Herrikoiko darsalen banaketea frontoian.
08:30ean, material ikuskapena.
08:45ean, danak urtekeran.
08:45ean, korrikarien aurkezpena.
09:00etan, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketa Nagusiaren eta Gorbeia Suzien Ternua Herrikoiauren urteker. Disk Breakers-ek ipiniko dau musikea.

Ekintzak herrian egunean zehar: puzgarriak, denda espezializatuen postuak eta abar.
13:30ean, bazkaria
14:00etan, sari banaketea.
16:30ean, slackline.
17:00etan, Aiko taldeagaz erromeria.

BIZIKLETEA

Arratian zeharreko bueltea egin eban Andren Bigarren Martxa Zikloturistek

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 12an Arratiako Andren Martxa Zikloturistearen bigarren edizioa izan zan. Aurreko urtean legez, txirindulariak 24 km. egin ebezan Arratiatik zehar. Ekimen honen helburua andrak bizikletan ibilteko ohitua hartzea edo mantentzea da.

Igorreko Urbietako futbol zelai ondotik urten ziran txirindulariak. Ibilbidea, Igorretik Zeanuriraino eta bueltea zan, Dimatik pasauta, guztira 24 km. Ondoren, kopautua egon zan parteideentzat eta zozketea. Berezi tabernan merienda zozketatu zan.

Igaz baino jente gitxiagok hartu dau parte aurtan; 21 txirindularik



igaz 38 izan ziran bitartean. Ander Gorospe AZEkoaren arabera, beste errazoi batzuen artean egon

daiteke, "arrapaladan" prestatu behar izana. "Hile honetan ekin-tza asko dagoz, astegoi guztietan, eta atzenean galapan ibili behar izan gara. Lar arin" dino Gorospek.

Kirolariak eta zaletuak

Edade eta preparazio desbardi-neko andrak hartzean dabe parte martxa honetan. Nazioarteko mailako Naia Alzola ziklisteagaz batera, inoz konpetidu ez daben andra bizikletazaleak be hartzean dabe parte. Helburua kirola egi-nez ondo pasatzeaz gainera, andrak kaminora urteten animetea da, eta bizikletan ibilteko ohitua hartzea edo mantentzea.

Martxa hau abian ipinteko eki-mena Aitziber Eguskiza igorrezta-rrak euki eban igaz. Semea AZEn hasi zan eta beste ama batzuekaz berba eginda konturatu zan andrazko askori bizikletan ibiltea gustau arren, ez zirala kaminora urteten. Izan be, guraso izatean, gizonak euren ki-rol praktikak indartzen dabezan bitartean, andrak baztertu egiten dabez kasu askotan.

Martxa hau egitea idea ona iruditu jakien AZEkoai eta hasike-ratik lagundu dabe antolakuntzan, euren azpiegitura guztia ipiniz. Udalak be lagunduten dau, jan-edanagaz.



Bigarren Martxa Zikloturistako partaideak.

MENDIA

Alex Txikonek Thalay Sagar horma eskaletako espedizinoa egin dau

Erredakzioa

Thalay Sagar (6.904 m.) mendiko 300 metroko horma eskaletako helburua dauka Alex Txikonek. Thalay Sagar mendia, Ganges ibaiaren iturburuan dago, Gangotri sagraduan. Hormatza honen tontorrera heltzea da Alex Txikon buru daukan espedizinoaren helburua. Ekaitz Maiz, Felix Criado, Txus Lizarraga,

Adrian Legarra eta Daniele Nardi dira bere espedizionokideak.

Urri lehenengoaren 7an, Thalay Sagar mendia ipar-mendebaldeko ertzpeko 300 metroko hormaren oinarria heldu ziran. Egun haretan, ekipetako, beste hiru bat egun beharko ebezala kalkuletan eben. Eta ekipau ostean, tontorrerantzako 500 metroak egiteko asmoa eukien.



Alex Txikon espedizionokideakaz.

Organikoaren Hamabostaldia

MATERIA ORGANIKOA MURRIZTEN, BERRERABILTZEN ETA BIRZIKLATZEN IKASTEKO DOAKO HITZALDIAK.

Zure etortzea baieztatu ezazu: **946 311 717**

Data	Ordua	Lekua	Saloa
Irailak 19	10:00-15:00	MERKARTEA, Artea	KONPOSTAREN JAIA 11.00 Bermikonpost hitzaldia 12.00 Etxe konpost hitzaldia 13.00 Konpost motak eta bere erabilpenak
Irailak 22	18:00-20:00	Igorre, Kultur Etxea	Zure baratzea balkoian (I)
Irailak 23	18:00-20:00	Igorre, Kultur Etxea	Bermikonpostaketa
Irailak 24	18:00-20:00	Igorre, Kultur Etxea	Zure baratzea balkoian (II)
Irailak 29	18:00-20:00	Igorre, Kultur Etxea	Nekazaritza ekologikoa (I)
Irailak 30	18:00-20:00	Igorre, Kultur Etxea	Elikagaien kontserba
Urriak 1	18:00-20:00	Igorre, Kultur Etxea	Nekazaritza ekologikoa (II)
Urriak 7	18:00-20:00	Arantzazu, Kultur Gunea	Janari hondarrekina sukaldatu



likas ezazu konpostatzen, zure balikoiko baratzairekin modu osasuntsu batean elikatzen, elikagai-hondakinak gutxiagotzen eta ez galdu birziklapen eta **goi mailako sukaldaritzaren inguruko hitzaldia: Alex Mujikaren "Janari hondarrekina sukaldatu"**, La Perla hoteleko sukaldaria.



Alex Mujika



IKASTAROA

Txotxongiloak erabilten ikasteko ikastaroa Areatzan**Erredakzioa**

Areatzako Sugoi Panpin Labo-rategiak txotxongiloak erabilten ikasteko ikastaroa antolatu dau, 12 urtetik gorako interesatuentzat. Txotxongiloak eta txotxongilo erraldoiak erabilten ikasiko dabe bertan partaideak Patxi Labordaren eskutik.

Saio bi eukiko dauz ikastaroak. Lehenengoa urri bigarrenaren 30ean izango da, arrastiko

19:00etan. Labordak jarraibide batzuk emongo ditu egun horretan eta "etxeke lanak" ipiniko deusez ikasleai. Ikasleak euren kabuz trebatuko dira hurrengo asteetan eta ondoren, beste saio bat egongo da irakasleagaz.

Ikastaroa debaldekoa da eta parte hartzeako Areatzako udalarekin emon ahal da izena daborduko. Eskolak Karpon izango dira eguraldi ona bada eta frontoian euria egin ezker.

IKASTAROAK

Udal ikastaro eta tailerretan matrikula epea zabalik**Erredakzioa**

2015-2016 ikasturteko udal ikastaro eta tailerrak urrietan hasiko dira. Ikastaro batzuk urtean-urtean egiten dira eta ikasle fidelak ditue: yoga, pilates eta euskal jantzak esate baterako, eta honeek osotuten dabe eskeintzearen parterik handiena. Gehienak gorputza eta burua sasoiari mantentzeko dira. Dana dala, bada goz barriak denporak eta ohiturak aldatu eta eten barik sortuten diralako gauza barriak eta eurak ikasteko preminea.

Aurreko zenbakian Lemoako ikastaroak aitatu genduzan, oraingoan, Artea, Bedia, Dima eta Igorrekoak. Areatzan apur bat atzeratu egingo da barrikuntzak sartzeako asmoz dagoz eta. Beste herrietan be lanean dabiz ikastaroak prestatzen. Jente guztiak matrikulea egin arte aldaketak gertatu daitezke, talde bat sortzeako jente nahikorik ez daualako izena emon ala talde barri-

ren bat sortu dalako.

Artea

Artean ikastaroak sortzeako epean dagoz. Izan be, herritarrai itauntzeko zeintzuk diran gura dabezan ikastaroak galdeketea egiten dabiz. Horren arabera ebatziko da, ikastaro barririk egongo dan ala ez, eta egotekotan, ze ikastaro sortu. Dana dala, Yoga, Pilates, Aerobic, 3. adineko gimnasia, Umeen euskal jantzak, Eskulanak eta Arte aplikaduak mantentidu egingo dira seguru asko.

Izena emoteko epea hilaren 25era arte izango da Artean errolatuentzat eta ez errolatuentzat hilaren 25etik 29ra. Taldeak aurrera aterateko, gitxienez 8 lagunek emon beharko dabe izena.

Bedia

Bedian ibilbide luzea egindako ikastaroak dagoz, arrakasta izan dabenak. Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Zumba, Korru jantzak, Umentzako euskal jantzak, Ingelesa,

Euskera eta Argazkigintza... egin daitezke bertan urrietan hasita.

Liburutegian egin behar da matrikulea arrastiko bostetatik zortzi-rak arte, urri lehenengoaren 7tik 25era bitartean.

Dima

Diman hilaren 25era arte emon daitezke izena, honako ikastarotan: Yoga, Pilates, Eskulanak eta Gimnasia hipopresiboa. Taldeak aurrera eroateko gitxienez zortzi lagun apuntau behar izango dira.

Igorre

Eskeintza zabala aurten be Igorrekoa, kultura zein kirolari jagokonean. Tai chi, Jantza afrikarrak, Antzerkigintza umeentzat eta familientzat, Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa, Literatur txokoa, Argazkigintza (hasiera eta sakontze maila), Zirko ikastaroa (akrobaziak eta malabareak) eta umeentzako Funky ikastaroa egongo dira Igorren.

Kiroldegian, barriz, Spinning, Aretto jantzak, Aerobic, Pilates, Zumba, 3. adineko gimnasia, Giharketea eta Igeriketea. Igazko aprilean hasi zan Gu be bai runners, andren galapan egiteko taldea egongo da martxan ikasturte honetan be Iraia Garcia atletaren eskutik.



www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

begitu
arratia ubide zeberio

12 urte eta gehiago

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

ERAKUSKETEAK

Arratiako Tranbiaren erakusketea Areatzan

Erredakzinoa

Zertu Kultur Elkartek antolatutako Arratiako tranbiaren gaineko erakusketeak bere ibilbidea egiten jarraituten dau. Urri lehenengoaren 18tik 27ra Areatzako ludotekan egongo da. Erakusketearen inaugurazioa 19:30ean izango

da. Ondoren, Jon Uruxurtu erakusketako komisarioak eta Juanjo Olaizola Burdinbidearen Museoko zuzendariak berbaldia egingo dabe.

Bilbotik Durango eta Arratiarako tranbia elektrikoa. 50 urte Arratiako tranbia barik izeneko erakusketeak, 140 argazki, presnan agertutako



Tranbia Areatzan.

hainbat artikulu, zine irudiak, billeteak, maketak eta abar biltzean ditu, tranbiaren historia gogora ekarteko. Tranbiak XIX. mendearan amaieran egin eban lehenengo bajea eta 1964an azkena, Arratia, Durango eta Bilbo lotuz.

Urtailean egon zan erakusketa hau ikusteko lehenengo aukerea Zeanurin. Ondoren, Igorren, Lemoan eta Galdakaon egon zan. Erakusketea ikusteko atzen aukerea da Aretzako Arratian, urri bigarrenetik abendura arte Bizkaiko Foru Aldundiko Bilboko Foru Liburutegian egongo da-eta.

LEHIAKETEAK

Ordiziako Gazta Txapelketea irabazi dau Ipiñaburu gaztaiak

Erredakzinoa

Jon Etxebarria eta Puy Arrietaren Ipiñaburuko (Zeanuri) gaztaiak irabazi dau aurtun Ordiziako Txapelketea. Ez da lehenengo aldia, orain dala hiru urte be irabazi eben Ordiziako Gaztai Txapelketea. Gaztai irabazlearen erdia Catalana Occidentek erosi eban 7.600 euro ordainduta.

Lehian, 48 gaztai egon ziran, 22 ketuak eta 26 ketubakoak. Ipiñaburuk gaztai ketua aurkeztu eban, zezeilaren 28koa. "Sano pozik gagoz, hiru urtean birritan irabaztea Ordiziako emozionantea da. Aurrekoan ezin izan ginan egon

eta oraingoan umeagaz igo gara eszenalekura saria jasotera. Sano emozionantea" azaldu deutso BEGITURI Jon Etxebarriak.

Sariak

Gaztai txapelketen sasoia hasi baino ez da egin, baina Ordiziako ez da izan Ipiñaburuko gaztaiak jaso dauan sari bakarra. Abuztuaren 16an, jatorrizko izendapen saria irabazi eban Plentzian. Azepeitan bigarren eta Elgoibarren hirugarren be egin dau Ipiñaburuko gaztaiak. Beste hamar bat txapelketa geratzen dira eta beste sari asko be jasoko ditu dudu barik.



MEMORIA HISTORIKOA

Lubakiak berreskuratu eta atonduten jarraitu dabe urrineko eta hurreko gazteak

Erredakzinoa

Aurtengo udan be, Auzolandegiak 2015 programearen barruan, mundu zabaletik etorritako 40 gaztek, Lemoatxako lubakiak berreskuratu eta atontzeari ekin deusie, Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikarien zuzendaritzapean. Aurtengo lanagaz lubakietan aurrerapausu handia emon dala balorau dau Mikel Garcia Lemoako Gazte Teknikariak.

Aurtengo udako gazteen beharra beste leku batetik abiatu da, Gaintzabalen tontorraren beste aldetik, hain zuzen be. 140 metro berreskuratu eta atondu ditue eta material ugari topau dabe: narruzko kartutxerak, oinetakoak, gudari baten garrikoaren belarria, balak, metraila zatiak, eta abar.

Horretarako, Errusia, Frantzia,



Argazkiak: Lemoatx 1937.

Italia, Alemania, Txina, Korea, Taiwan, Espainia eta Euskal Herriko 40 gazteak, hamabost eguneko txanda bitan egin dabe behar. Aranzadiko boluntario asko izan dabe laguntzaile eta Tito Agirre eta Alberto J. Sampredo izan dira teknikariak.

Lemoatxako batailearen eszenalekua errekeretako behar



handia egin dabe atzen hiru urteotan Udalak, Auzolandegietako gazteak eta Lemoatx 1937 Batzordeak. Baina ondino lan handia dago egiteko. "Lemoatxen egindakoa, zatiaren % 50 baino ez da, eta Memoria Historikoari jagokonez ondino pausu handiak emon behar izango doguz" dino Garciak.

Pausu horreek emoteko proiektu barria dagoz prestatzen Udala, Lemoatx 1937 Batzordea eta Aranzadiren artean. Proiektu honek hiru ardatz izango ditu: Lemoatx inguruaren berreskurapena, gertaera historikoaren ikerketa sakona eta gizarteratze egitasmo barriak. Urte amaierarako proiektua prest egotea espero dau Lemoako Gazte Teknikariak.

begitu
emalia ez dala ezertan

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia
Zentroa
Igorre
Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari
Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

ARA OTZ
Lanegia eta Jabetza
Tel. 94 631 60 08 • email: info@araratz.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

RUGBY
TABERNA
•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak
arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako
instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 15
ARRATIA

Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik zemiaren 11ra arte.

LEMOA

19:30ean, Lemoako Gu be bai Runners-en aurkezpena. Elizondoko Kulturgunean.

URRI LEHENENGOAK 17
DIMA

17:00etatik 19:00etara, Lanbideren puntu mobikorra.

LEMOA

19:00etan, Ganzabalek antolatuta, Argazkigintza tailerra. "Nola hobetu irudia: ebaketa eta konposizioa". Jubiladuen Ebeko goiko aretoan.

ZEANURI

18:30ean, Emakumeen Mundu Martxaren aurkezpena. Kultur Etxean.

URRI LEHENENGOAK 18
AREATZA

19:30ean, *Bilbotik Durango eta Arratiarako tranbia elektrikoa. 50 urte Arratiako tranbia barik* erakusketaren inaugurazioa. Ondoren, Juanjo Olaizolaren berbaldia. Ludotekan.

URRI LEHENENGOAK 19
ARTEA

MerkArtea. Ikusi programea 5. orrialdean.

IGORRE

Inbiu Eguna. Ikusi programea 7. orrialdean.

ZEANURI

14:00etan, auzo bazkaria eta ostein Mus Txapelketa. 16:00etan, trebetasun jokoak ume eta helduentzako; ondoren euskal jantza ikastaroa. Urriben.

URRI LEHENENGOAK 20
AREATZA

Parkebeak eta Lamino Kirol Klubak antolatuta, mendiko urtekera Ixinarako karst-a inguratuz.

ARRATIA

09:00etan Arratiako ibaiertzetatik martxea, Zeanuriko plazatik urtenda. Autobusa Bediaatik 08:15ean. Buelatarako autobusa 14:00ak aldera Bediaatik urtenda.

BEDIA

Kotxe bako eguna. 10:30ean, Bediaatik zehar ibilbidea bizikletan; 11:30ean zirkuitua bideko hezkuntza; 13:00etan, parte hartzaile guztien artean bizikleta bat zozketatuko da.

LEMOA

Ganzabal Mendi taldeak antolatuta, Oroitze Eguna. Elorrio/Besaide (564 m.).

ZEANURI

11:00etan, Urribeko I. Bizikleta Karrera; 13:00etan, mezea eta ondoren barauskarria; 18:00etan, Igel Txapelketa kanporaketa eta Herri Kirolak. Desafioa: Aizkora, trontza-bokorrak Urriben.

URRI LEHENENGOAK 21
LEMOA

Urribigarrenaren 8ra arte, 2016ko aurrekontuetarako ekarpenak egin daitezke.

ZEANURI

12:00etan, mezea eta barauskarria; 17:30ean, txokolatea eta urdaia; 19:00etan, Igel Txapelketa.

URRI LEHENENGOAK 22

DIMA

Ipuin erotikoen lehiaketara lanak bialtzeko atzen eguna.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, berbaldia "Zure baratza bakoian (I)". Kultur Etxean.

19:00etan, Emakumeen Mundu Martxaren aurkezpena Kultur Etxean. Ondoren landaketa sinbolikoa.

ZEANURI

19:00etan, Aiko taldeagaz jantza tailerra.

URRI LEHENENGOAK 23
AREATZA

19:00etan, mahai-ingurua "Zergaitik egiten dogu komika?". Hassan Ait Chau, Aitziber Ibarbia eta Jokin Lizeaga. Moderatzailea: Andoni Beldarrain kazetaria. Udal Aretoan. Suzien Mendi Klubak eta AKKBk antolatuta.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, berbaldia

"Berniokonpostaketa". Kultur Etxean.

URRI LEHENENGOAK 24
IGORRE

18:00etatik 20:00etara, berbaldia "Zure baratza bakoian (II)". Kultur Etxean

19:00etan, mahai-ingurua "Euskera eta kirola". Igor Anton eta Koikili Lertxundi. Kultur Etxean. Moderatzailea: Amane Ibañez ETBko kazetaria. Suzien Mendi Klubak eta Koikili Aterpeteak antolatuta.

ZEANURI

09:00etan, Gorbeia, Zeanuriko Jubiladu eta Pentsiodunen alkarteak antolatuta, urtekera Najera eta Laguardiara. Sagarna portalean.

URRI LEHENENGOAK 25
BEDIA

17:00etan, tailerra: Txorien ebekioentzako ganbelak. Ludotekan.

IGORRE

18:00etan, ludotekako umeen guraso batzara Kultur Etxean.

IGORRE/LEMOA/ZEBERIO

19:30ean, atzen bankua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, *Stretching* saioa. Jubiladuen Ebeko goiko aretoan.

ZEANURI

17:00etan, Kasia Biemackaren berbaldia eta argazki galeria; 18:00etan, prensaurrekoa; 18:00etatik 20:00etara, Lasterketa Nagusiko eta GST Herrikoiko dorsalen banaketa frontoian; 20:00etan, Leo Houlding-en berbaldia eta proiektzioa; 22:00etan, Alex Txikonon filma.

URRI LEHENENGOAK 26
DIMA

09:30ean, Tiritu BTT martxea. Plazatik urtenda.

IGORRE

12:00etan, jai hasierako txupina; 15:00etatik 16:00etara, Tortilla Txapelketarako izen emotea; 18:00etan, Tortilla Txapelketako sari banaketa; 19:00etan, erromeria. Garben.

ZEANURI

11:00etan, umeen lasterketa. Puzgariak, tailerak eta abar. Izen emotea 10:00etatik aurrera; 17:00etatik 19:00etara, Lasterketa Nagusiko eta GST Herrikoiko dorsalen banaketa frontoian; 19:00etan, briefing-a.

Karmeletelletearen pinturak
Igorreko Kultur Etxean

Urri lehenengoaren 11tik 25era Karmeletelletearen lanak ikusteko aukea dago Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

Paisajeak, bodegoiak, giza irudiak... pintura gai klasikoak dakartzku Telle-teak bere kolorez betetako koadroetara. Erakusketa honetan Telle-teak Herman Hesserren berbak ekarten ditu gogora: "Edozien arteren hasikerea maitasuna da. Edozein arteren balioa eta anplitudea, guztiaren gainetik artisteak daukan maitasun ahalmenak zehazten dau".

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Bogaboo-a eta sehaska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

DANERIK

BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketarako egiten dodaz. Kotxeduna 658 591 307.

BEHAR BILA

Igorretar euskalduna, Haur Hezkuntza eta administratzen ikasketak + kotxea + esperientziagaz, urri lehenengoaren 13tik aurrera, umeak zaindu, etxea garbitu eta beste hainbeste gauzatarako prest. Deitu 639 293 539 telefonora (Eider).

BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakoitza aseguru eta alarmegaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrenaren! Astean ordu biko klaseak, arrastietan. Interesauta bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

TXELOA

2/4 edo 3/4 tamainua daukan txeloa behar dot. Aukeran gurago neuke alokairuan hartu. 689 327 003.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
Zertu Kultur Elkarteak emondakoa BEGITUREN kamiseteta.

Eñaut Intxaurreaga (Zeanuri)
Sebas Angoitia (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Botagura. 2.- Bokala. Neska ez dana. 3.- Nobelioa. Lasai. 4.- Zeozer egiteko denpora bitarte. Berrogeta hamar erromatar. Sufrea. 5.- Adin. 6.- Bokala. Argona. Bizkaieraz, hiri. 7.- Pupa. Osmioa. 8.- Gizon zahar. Oxigenoa. 9.- Lihoaren hazi.


GOITIK BEHERA

1.- Sorpresea adierazoten dau. Berme. 2.- Konsonantea. Erromatar mitologian, Saturnoren emaztea. Eguneroko janari. 3.- Sanskritoko silaba sagradua. Sama-siku. 4.- Birritan, motorraren zaratea. Bokala. Modua. 5.- Zaitu. Ezeta. 6.- Txirritxiriaren kantuaren onomatopeia. Zoro. Bat erromatar. 7.- Agur, diosal. Zama-abereai gelditu daitezana.



Topau biribilak diran zazpi gauzaren izenak.

A	R	K	A	Z	A	L	O	P	I
S	E	G	E	A	N	I	A	L	D
T	T	X	A	N	P	O	N	A	U
I	E	A	Z	K	U	R	I	T	A
T	E	L	E	M	O	A	K	E	R
O	S	B	A	L	O	I	A	R	E
G	O	R	P	E	G	R	O	A	B
E	S	A	E	K	U	R	K	E	A
B	A	R	L	O	I	A	D	A	R
O	D	E	O	I	S	T	O	L	E
G	O	R	T	A	P	O	B	A	L
A	R	K	A	M	A	R	R	A	K
T	X	E	R	K	O	R	U	B	A
Z	A	R	A	N	A	E	S	G	U
M	A	N	U	T	Z	A	R	E	P



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Egin zaitez Begitu lagun!

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...

ZUZENBIDE

AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGA
KONTABILITATEA

ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRAZIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.

Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheha - Igorre (Bizkaia)

NANCY STEKLA ETA KATHRIN THEIS

Laster arte Nancy,
ondo etorri Kathrin

Tamara Berganza eta Unai Idoiaga bikoteak automobilan industriari egiten dau lan. Beharrak holan erakutsita konziente dira gaur egun hizkuntzak daukien garrantziaz. Hogeta bi urte egin arte sei bider au-pair joandakoa da Tamara eta aukera ona zala ikusita, eurek biziteko au-pair moduan gaztetxo bat ekarri eben orduan. Lehenengo Kathrin etorri zan, Kelly gero, Nancy aurrerago eta Lara orain. Beharragaitik bihurtzeko flexibilitatea dauka bikoteak eta seme-alabak aleman ikasten dabe bitartean.

Au-pair bigaz egon da BEGITU, Kathrin Theis eta Nancy Stekla-gaz. Kathrinek hogeta hiru urte daukaz eta Trier-ekoa da, Nancy osteria Emsdetten-ekoa da eta hemeretzi urte daukaz. Lehenagotik alkar ezetu ez eta esperientzia honek batu dauz alemaniar biak Areatzan, etorkizun baten biziteko deskartetan ez daben herrian.

Irati Urien**Zer da au-pair izatea?**

Kathrin: Familia batera zoaz eta haur zein umeak jagoten dozuz. Baina langile bat baino gehiago familiaren parte zara. Webgune bat dago non bai familiak eta bai au-pair-ak profil bat daukien. Familiakaz kontaktuan ipinten zara orduan, lehenengo adibidez emailez idazten dozu eta gero Skype bidez hobeto ezetu dagizuzan. Familia gustetan bajatzu eta familiari zu gustetan bazatxakoz, baietz esaten dozu.

Zergaitik Areatzara?

Kathrin: Espainia guztiko hainbat familiagaz egin neban berba Madrild, Valentzia, Bartzelona... Gero Areatzako Tamaragaz berba egin eta maitemindu egin nintzan beragaz. Skype bidez bost minutu

berba egin eta banekian etxe horretara joan gura nebana. Berez uriburu handi batera joan gura neban baina atzenez inportanteena familia atsegina dala iruditutea da.

Nancy: Nik be beste familia batzuk egin neban berba eta uriburu handi batera joan gura neban. Ia beste au-pair batzuk egozan galdetuten neban beti, lagunak egiteko gogoagaz. Atzenez Tamaragaz berba egin eta maitemindu egin ninduan ni be, oso maitagarria da.

Zelan hartu zaitue? Badakigu lagunak egin dozuezana.

Kathrin: Ni oso ondo. Lehen ez nekian gaztelaraz ezer, "hola" eta "adios" ez bazan. Gogoan daukat lehenengo egunean herrira joan nintzala Tamaragaz, eta baten bateri "adios" esan neutsala. Ta-

marak orduan, "parkatu Kathrin, hemen adios ez, agur esaten da". Gaztelan nekian ehuneko berrogeita hamarra ezin neban erabili (umorez). Baina ondo. Hilabete bat barru gitxi gorabehera Ane, nire laguna, eta beste batzuk tinbrea jo eben esanez baekiela euren adineko neska bat etorri dala Alemaniari eta ia hondartzara joaten animetan nintzan. Tamarak baietz esan eutsen baina ez nebala gaztelara bape be aituten. Eurek bardin dauala, eskuakaz eta komunikauko ginala. Orditik ona beti alkarregaz.

Nancy: Ni ondino Kelly hemen egoanean etorri nintzan, eta adin bardinekoak ginanez beragaz joan nintzan lagunakana, orain kuadrila dodanera.

Errez egin dozuez lagunak. Zelangoak dira Areatzakoak?

Kathrin: Oso atseginak, oso zabalak. Alemanian baten bategandik zeozer gura badozu zu joan behar zara berarengana baina hemen zugana datoz, eta interesauta gainera. Nondik zatzen, zer egiten zabizen... Itzelezko pazientzia euki dabe nigaz, batez be gaztelanagaz.

Eta euskerea? Ze kontakto euki dozue beragaz?

Kathrin: Hemen, batez be Tamararen etxean, dana azaldu deuskue. Berarentzat be oso garrantzitsua zan errespetua euki



genduan, nora etorri garan jakin. Beti esaten dot hasikeran euskeraz berba egiten nebana umeen euskera zala, "bota ez", "ze gozo", "txapelduna!"... eta holangoak. Denporeagaz egunero erabiltzen diran berbak ikasi nebazan, "zelan", "ondo", "agur", "eskerrik asko", "parkatu!"... Niretzat be oso inportantea da, euskeraz esaten dakidan dana esan egiten dot nahiz eta igual apur bat txarto agoskatu. Orain behin betiko hemen geldituko nazanez euskerazko klaseetara apuntauco naz ondo ikasteko.

Nancy, zelan esplikaue zenuke Alemanian non egon zaran?

Nancy: Nik hau Euskal Herria dala esaten dot. Ezin neike esan urte bete Espainian egon nazela, "Zelan Espainiari?" galdetuten deuste, eta nik Espainiari ezetz baina oso ondo nabilela erantzuten deutset.

Zein da hemeko irudia Alemanian?

Kathrin: Ezagututen daben gauza bakarra sarritan ETA da. Esaten dot ba ni herri baten egon naz, Espainia eta Frantzia artean. Hor, bitarte horretan ezer ez dagoan

lez... Apur bat gatxa da azaldu-teko, niretzat be gehiago dalako sentimentu kontu bat.

Kathrin zu hainbat bider egon zara.

Kathrin: 2011n etorri nintzan lehenengoz. Hasikeran urte bete gelditu gura neban eta atzenez bi izan ziran. Gabonetan, aste santuan, udan, jaietan... bisitan be ahal dodan guztietan etorten naz.

Hemetik aurrera ze asmo daukazue?

Kathrin: Ni hemen geldituko naz. Betirako ez dakit baina bertan gelditutea sano gustauco litxakit. Momentuz Areatzako beste familia bategaz bizi naz, eta posible bada Gasteizen Filologia ikasten hasiko naz Alemaniarazko klaseak emon ahal izateko.

Nancy: Ez dot sekula esaten Alemanian geldituko nazanik, igual egun baten ni be hona etorriko nazalako biziten. Askok gustetan jata. Momentuz aste honetan Alemaniara bueltetan naz. Ia urte erdi hau zelan doan eta gero ia hemen edo Alemanian ikasten hasten nazen. Inoz ezin leike jakin, baina seguru bueltauko nazala.

aek

euskara praktikoa

30 urtean,
50.000 lagunek
ikasi dute
euskara
gure 100
euskaltegietan

Eman izena



Arratiako AEK

- Matrikula zabalik.
- Maila guztiak. Azterketa ofizialak (1., 2., 3. eta 4. maila)
- Orduzabalak.
- Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.

Agirre Lehendakaria 4, Igorre
94 631 56 57 · 607 632 916
arratia@aek.org